

opusdei.org

Kontzertu solidarioa errefuxiatuen alde

Kontzertuko diru-bilketa
Irakeko errefuxiatuen alde

2016 Api 15

Aiete Ikastetxe Nagusiko
unibertsitario gazteek antolatutako
kontzertua, solidaritatea helburu,
Euskal Herriko musikaren bi figura
berezik parte hartzen zutela;
Donostiako Orfeoia eta Musikene
Banda Sinfonikoa.

Joan den otsailaren 26an, bi formazio
horiek eszenarioa partekatu zuten,

Jose Ricardo Pascual-Vilaplanaren
zuzendaritzapean emandako
kontzertuan, diru-bilketa
errefuxiatuen alde eta etxerik
gabeko pertsonen alde Caritasen
lanari zuzenduz.

Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta EHU

Sei hilabete antolatzen ibili ondoren
eta beharrezko saioak egin eta gero,
dena prest zegoen kontzertua
ospatzeko. Arratsaldeko zortzietan
eta Kursaal ia-ia beterik, hasi zen
kontzertua. Ezusteko jende gazte pilo
handi batez gainera, pertsona
ospetsuak aurkitzen ziren ere,
Donostiako alkatea, Eusko
Legebiltzarreko lehendakari and.,
adibidez.

Han zeuden ere D. Jose Inazio
Munilla, Donostiako Gotzaina,
Nafarroako Unibertsitateko
arduradunak eta proiektu honetara
lotu berriko, Euskal Herriko

Unibertsitateko eta Deustu
Unibertsitateko erantzuleak.
Ekitaldian, Gounod, Verdi, Puccini
eta Mascagniren obrak interpretatu
ziren, entzuleei modu harrigarrian
gustatu izan zitzairen programan.

Kontzertuaren onuradunak bi
proiektu hauek dira: Caritasen
Hotzaldi abegi zentroa, Donostian
etxerik gabeko jendeari ostatu eman
eta laguntzen diena; eta Ankawa-
Erbil (Irak) herrian eskola bat
errefuxiatuen haurrentzat. Alberto
Ortegak, Irak eta Jordaniako nuntzio
apostolikoak, gutun baten bidez
eskertu nahi izan die antolatzaileei
Ekialde Hurbilean kristauei
emandako laguntza. “Lagundu nahi
dugu, gai hau gori-gori baitago orain”
dio Jorge Olivak, Aiete Ikastetxe
Nagusiko hezkuntza zuzentzaileak.

Ekitaldi honetan Ikastetxe Nagusiak
8.000 euro lortu ditu Caritasentzat.
Datorren urterako, xede berarekin,

unibertsitate gehiagoekin elkartzea, estrategia berriak sortu antolakuntzan, eta ekitaldi txikiagoak baina ugariagoak egitea, dute helburu. “Ematen denaz gainera, garrantzitsua da gizarteari ematen zaion mezua. Kultura ekitaldi baten bidez, besteei lagundu diezaiekegula eta hori egiten dugunok gazteak garela” da bidaltzen den mezua, dio Jorge Olivak.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/kontzertu-solidarioa-
errefuxiatuen-alde/](https://opusdei.org/eu-es/article/kontzertu-solidarioa-errefuxiatuen-alde/) (2025 Api 27)